

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

304 - 2022ko UZTAILA



JAI GIROAN,
UDARAKO PREST!

ARAXES ESKOLAKO LH1 ETA LH2, ZARAUTZEN

Beteluko Araxes ikastetxeko 1. eta 2. mailako neska-mutilok, azaroan eskaera egin ondoren, ekainaren 6an, astelehena, Zarauzko Igerain aterpetxean mailetak utzi eta Getariara joan ginen, gure lehen kanpaldia bizitzeko asmoz, urduri eta gogotsu.

Getarian, Elkanoren eskultura ikusi eta kale estuetatik barna ibili ondoren, hondartzan bainatu ginen eta karramarroak hartzen aritu ginen. Parke batean bazkaldu genuen eta tipi-tapa, mendiko bidexkatik barna, oinez itzuli ginen Zarauzko aterpetxera. Bideko landare eta zuhaitzak izendatuz oharkabean iritsi ginen. Dutxa ederra hartu ondoren, bapo afaldu eta adostutako "txorakeria saioan" ederki pasa genuen. Nekatuta geunden eta ederki lo egin genuen.

Biharamunean, trena hartu eta Zumaia aldera abiatu ginen. Bertako hondartzan harearekin eraikuntzan aritu ondoren, Zarautzera itzuli ginen bazkaltzera. Arratsaldean hondartzan olatuekin gozatu ederra hartu genuen eta hareazko "jakusi erraldoia" eraiki genuen denon artean. Afalondoren, adostutako jolas, antzerki eta emanaldiekin izugarri gozatu eta gero, lotara joan ginen. Bigarren mailako batek emanaldi zoragarria eskaini zigun erraldoiak dantzan jarritz. Aho zabalik utzi gintuen. Gainerakoek antzerkitxoak prestatu genituen panpintxoekin eta. Ez genuen inongo presarik lotara joateko!

Asteazkenean, gosaldu ondoren, batzuk gimnasioan jolasten eta beste batzuk gutunak idazten eta margotzen aritu ondoren, autobusa berehala zain genuela ikusirik, etxerako bidea hartu genuen. Zoragarria izan zen: denak elkarrekin, denak pozik, denak parte hartuz, denak jolastuz, giro ederrean....Ederra izan zen benetan!



MAILOPE

- MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN: Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

- ARGITARATZEN DU: Mailope Kultur Elkarte. L.G.: NA 719/93 Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik. issuu.com/mailopealdizkaria

- ERREDAKZIOA: Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandezena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

- ARGAZKIAK: Larraungo Udala, Araizko Udala, Ainhoa Oiartzabal, festak.com, Beñat Pellejero, Aralar Musika Eskola, Leire Aizpurua, Asier Elizalde, Joxe Enrike Beraio, Labrit.

- PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

- MAKETAZIOA: Mikel Urriza eta Oroitz Zabala.

- TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

LABRIT MULTIMEDIA

AURKIBIDEA

04

KUXKUXEAN Uztaileko zorion agurrak.

08

MAITE DITUT MAITE Plazaola-Hiruzubide itzulia

10

ELKARRIZKETA



Bernar Azpirotz eta Luis Urbizu

14

BATZARRE

16

ERREPORTAJEA



Euskal Herria Mendi Erronka lasterketa

20

KULTURA Beñat Pellejero (Gabezin taldea)

10

ELKARRIZKETA

Joxerra Aldaregia, 'Pirris'



26

ERREPORTAJETXOA Festak ospatzeko gogoz!

28

PLAZATIK PLAZARA Astizko Aterpea.

31

AGENDA



Iraia Elordi Sanz

Uztailaren 18an, 3 urte.
Zorionak prexiosa!! Ongi pasa zure urtebetetze egunean. Segi hain alai eta jator izaten.
Muxu pila, asko maite zaituen familia guztiaren partez!!



Ane Apezetxea Gabari

Abuztuaren 24an, 11 urte.
Zorionak polita!!! Oso ongi pasa zure egunean!
Musu handi bat etxekoan partez!



Malen Astiz Arangoa

Uztailaren 7an, 5 urte.
Zorionak Malen!!!!
Egun ederra pasa! Muxu potoloak etxekoan partez!!!

Eneko Etxeberria Arginarena

Uztailaren 12an, 2 urte.
Zorionak pottoko!
Egun bikaina pasa dezazula, eta jarraitu orain bezain jator.
Muxu erraldoi bat Ane, aitaxo, amatxo eta familia guztiaren partez.



Ur Zubeldia Egidazu

Uztailaren 23an, 4 urte.
Zorionak bihurri!!! Muxu handi bat amatxo, aitaxo, Haitz eta familia guztian partetik. Eskerrik asko egunero etxekoak alaitzeagatik!!



Markel Etxeberria Etxarri

Uztailaren 22an, 4 urte.
Zorionak!!! Segi orain arte bezain jator, alai ta zoriontsua izaten. Muxu ta besarkada erraldoi bat!



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



EH BILDUK DIO "ARDURATUTA" DAGOELA KONTUEKIN

Lekunberriko Udalak adierazi zuen 120.933 euroko superabitarekin itxi dituela kontuak, baina EH Bilduk kontrako botoa eman zuen: adierazi du udalak ez dizkiola helarazi udaleko, garapen enpresa publikoko eta Beti Kozkorreko liburu nagusiak; bestalde, esan dute udalak altxortegian zituen 238.944,80 euro erabili dituela zenbait gastu eta inbertsio ordaintzeko, eta, haien arabera, 2021eko emaitza negatiboa dela: -118.011,49 euro.



LARRAUNI IHES EGIN DIO GARAIPENAK

Larraunek galdu egin zuen Nafarroako Herri Arteko Pilota Txapelketako finala, Baztanen aurka. Endika Galarzak eta Lucas Navarrok 22-3 galdu zuten hasieran; ondoren, partida dotorea jokatu zuten Aimar Golarazanak eta Intza Garañok, 6-22 irabazita. Azken partidaren baina, lehia oso estua izan eta gero, Xuban Armendarizek eta Iñigo Gurreak ezin izan zuten eguna borobildu, eta 22-18 galdu zuten. Pena handiz baina giro ederrean bukatu zuten txapelketa Labrit pilotalekuan.



LGTBIQ+ KOMUNITATEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Joan den ekainaren 28an, Larraun Ibarreko Berdintasun Mahaiaik deituta, LGTBIQ+ komunitatearen eskubideen aldeko elkarretaratze bat egin zuten Lekunberri. Aniztasunak aberasten gaitu lelopean egin zuten mobilizazioa, eta 50 lagun inguru elkartu ziren aldarrikapen horri eusteko.


► Xanti Saigos (Lekunberri)



Ekaina bukatu eta gauza bakarra buruan gosaririk prest baitugu zapi gorria eskuan grdoa gora eta behera eztanda entzun da zeruan konpartsa eta txarangak jotzen beraien doinua

Zezenen korrika hotsak estafetako zoruan ongi pasatzen saiatu Camelaren kontzertuan zerua argiz beterik afaltzerako orduan Sanfermiñetaz gozatu heldu zaigu momentua

Doinua: *Habanera*. Hurrengoa: Sugoï Etxarri (Arruiz)



GAUR, DUINTASUNA MAILLOT HORIAREKIN DATOR PENTSIODUNEN ESKUETATIK

Gaur, ekainaren 25ean, Donostian, Euskal Herriko Pentsiodunen Lehenengo Martxaren azken etapa hartuko dugu; 13 egun bizi eta jaiegun izan dira, eta gizarte-mugimendu zabal, plural eta bateratu gisa onartua dela gure gizartean. Herriz herri, aurrera jarraitzeko prest dagoen pentsiodunen mugimenduaren ilusia eta indarra partekatu eta egiaztatu dugu.

Gaur, txalotu egin nahi ditugu beren ahaleginarekin martxa hori ahalbidetu duten ehunka pentsiodunak; pedalei eraginez dena eman duten gizon eta emakumeak, eta beren denbora guztia funtziona dezan modu isilean eman dutenak; horrelakorik ez zatekeen gertatuko gaur hemen zaudeten eta egunero elkartzasuna adierazten digutenen babesik gabe.

Ospatu nahi dugu ezer ez litzatekeela berdina izango geu gabe. Lau urte baino gehiago kalean eman ondoren, aitortu behar dugu gure borrokak merezi duela eta Pentsioen Sistema Publikoaren aurkako erasoaren aurkako eustorma bat gara.

Txalo bero bat merezi dugu eta inoiz ez bezala Pentsionistak Aurrera oihukatzea!

Orainaldiko gizarte-mugimendu bat eraikitzen ari gara, etorkizun bikaina duena; gaur ereiten ari gara pentsio publiko duin eta nahikoa gisa jasoko dute gure belaunaldiak eta ondorengoek. Gure borrokaren bidez, gaurko pentsiodunak bermatu nahi ditugu, eta gure seme-alaba, biloba eta bilobentzat gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa eta askeagoa utzi.

Gaur eta hemen Euskal Herriko Pentsiodunen Lehenengo Martxaren helburuak berresten ditugu. EAEko eta Nafarroako erakundeei exijitzen diegu behar dutena egin dezatela pentsio publiko duin eta nahikoak, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, zerbitzu publiko unibertsalak bermatzeko eta arreta- eta zaintza-lanak partekatuzko.

Inork ez dezala zalantzarik izan gaur amaitzen ari den Martxak behar adina energia ematen digu gure helburuak lortu arte behar den denboran kalean jarraitzeko. Mobilizazioa da gure bermea.

Animo guztioi.

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua



SOSTENIBILIDAD RURAL LANDA IRAUNKORTASUNA

Afrontando el reto climático en común
Klima-erronkari denon artean aurre eginez

Akonpainamendu teknikoak
tokiko entitateentzat "Alkatetzen paktuak
klimarako eta energiarako" lantzeko.

Aholkularitza energetikoa tokiko entitateentzat,
enpresentzat, energia-komunitateentzat
eta herritarrentzat.

Laguntza energia berriztagarrien bidezko
autokontsumorako instalazioak tramitzeko.

NORENTZAT
DA

TOKIKO
ENTITATEAK

HERRI-
TARRAK

EMPRESAK

Argitu zalantzak
zeure lurraldean,
eta ausartu ekimen
iraunkorrenekin

NAFARROAKO MENDIALDEA

Cederna Garalur
Telefonoa: 697 65 56 64
infoenergia@cederna.es
www.cederna.eu

ESTELLERRIA

TEDER Elkarteak
www.teder.org

ERDIALDEA

Erdialdeko Tokiko Ekintzako
Taldea
www.navarramedia.es

NAFARROAKO ERIBERA

EDER Partzuergoa
www.consortioeder.es

“Oso atsegina
da nire
ezagutzak
praktikan
jartzea.”
Amaia



“Etengabe
berritu eta
eguneratu
behar da.”
Saioa



“Ez da bide
erraza baino
pena merezi
du.”
Asier



“Nire lanarekin
oso libre
sentitzen naiz,
ta egunero
gozaten dut
bizi naizen
inguruneaz.”
Mayte



“Nire lanak
nire sormena
garatzeko
aukera
ematen dit.”
María



“Gustatzen
zaidan
horretan
aritzea
benetako
luxua da.”
Elena



Zuk ere merkataria izan nahi duzu?

Bisitatu merkataritza.nafarroa.eus
eta lehen urratsa ematen lagunduko dizugu.



Beraien istorioak
ezagutu.

Gobierno
de Navarra Nafarroako
Gobernua



Hurrengo:

Xuban Goldarazena
(Arruiz)



Iñigo Lasarte
(Lekunberri)

Zergatik aukeratu dut?

Lasterka hasi nintzeneko itzuli bat da. Uda garaian egiteko egokiagoa da, neguan eta euri asko egiten duenean nahiko lokaztuta geratzen delako. Orain dela urte batzuk gainera, Iturraskarriko langileek Hiruzubideko bidea garbitu, markatu eta egokitu egin zuten, eta primeran geratu da.

maite ditut maite gure bazterrak

Plazaola Hiruzubide itzulia

Ibilbidea: Joan-etorri
eta zirkularra
Distantzia: 8.9km
Desnibela: +125m
Zailtasuna: Erraza



Bidea:

- 1 Ibilbidearen gehiengo Plazaolatik igaroko da, beraz, hasiera eta bukaera Plazaolako geltokian egingo dugu. Geltokitik aterata, Plazaolaren bidetik Irurtzongo noranzkoan abiatuko gara, eta kanpineko bidegurutzear errepi-dea gurutzatuko dugu.
- 2 Bidean, Mugiroko presa ikusiko dugu eta Iturraskarrik egokitutako hainbat zona ere bai. Horietako bat 500m igarota eta ondoren 2km-ra Ixkier ur-jauzia ikusteko jaitsiera bat. Zuzen jarraituko dugu.
- 3 2,4km igarota bidegurutze batekin egingo dugu topo. Plazaola utzi eta eskuinaldera jaitsiko gara, Mugiroko zentral hidroelektrikora, zubia gurutzatu eta Hiruzubideko kartelak ikusiko ditugu. Hori kolorearekin.
- 4 2km inguru egingo ditugu horiz markatutako senda batetik, erreka bazterrean dugula. Oso ongi egokitutako bidea da eta irristakorrak diren zonetan (neguan batez ere) egurrezko hesiak, errexkak gurutzatzeko andamioak... ipini dira.
- 5 Bi zubi ikusiko ditugu Plazaolara ematen dutenak. Bigarrena gurutzatuko dugu eta metro gutxi batzuetara Plazaolako bidera aterako gara. Plazaolatik bueltatu gaitzke Lekunberrira edo berriz ere egindako bidetik.

Elikatzeko

... #BesteModuBatBadago



Vicentek modu ekologikoan landatzen du, eta bertako eta sasoiko produktuak eskaintzen ditu



4/2022 Foru Legeak, Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzkoak, nekazaritza eta abeltzaintzako produktu hurbilekoak kontsumitzea sustatuko du, kanpainak eta sektore ekonomiko desberdinekin akordioak egitearen bidez, distantzia luzeko salgaien garraioa gutxitzeko, eta bai ekoizpen ekologikoa ere.

Lagunduko dizugu. Egin dezagun aurrera gizarte berdeago baterantz. Zuk ere bertakoa kontsumi dezakezu. Eta abeltzaintzako edo nekazaritzako ustiategi bat baduzu, eskatu ekologikoan ekoizteko laguntza eta pizgarrien gaineko informazioa.

nafarroogreen.eus

“Gaur egungo zerbitzua inbertsonalagoa da; langileek zenbakiak baino ez dituzte ikusten”

Elkarrekin makina bat ordu emandakoak dira Bernar Azpirotz eta Luis Urbizu, eta begi bistakoa da bien arteko konfiantza. Barre artean gogoratu dituzte Lekunberriko Laboral Kutxaren bulegoan eta handik kanpo bizitakoak. Herritarrekin zuten harreman estua nabarmendu dute, eta ahal zuten heinean laguntzearen garrantzia.

Lekunberriko Laboral Kutxak 40 urte bete ditu. Noiz hasi zineten hor lanean?

Luis: Nik ireki nuen! 1982ko otsailaren 18an izan zen, 34 urte nituela. Ez nekien ezer bankuek. Lau urte eta erdiz bakarrik aritu nintzen, hasieran. Beste lau banku zeuden lehendik Lekunberri: Caja Navarra, Caja Rural, Banco Vasconia eta Banco Central. Guk bosgarrena ireki genuen, eta ondoren seigarrena ireki zuten, Banco del Noroeste. Eskatu zidaten gainerako bankuetara joateko eta neure burua aurkezteko, azaltzeko bankua ireki genuela. Batzuei ongi iruditu zitzaizkien, baina kompetentziako batek esan zidan

“Ez genuen telefonorik, ezta ordenagailurik ere; dena eskuz egiten nuen”
Luis Urbizu

ez genuela ezer egiterik, Laboral Kutxa kooperatiben bankua zela eta hemen ez zela kooperatibarik.

Justuko teknologiarekin?

Luis: Ez genuen telefonorik, ezta ordenagailurik ere; dena eskuz egiten nuen. Lana bukatzean, edo lanean hasterako, Leitzara joaten nintzen egunero, hango Laboral Kutxaren bulegora, eta hango ordenagailuan idazten nuen eskuz idatzitakoa. Garai hartan, oso garestiak ziren ordenagailuak, eta ez zen errentagarria.

Nolatan hasi zinen zu, Bernar? Aurretik elkar ezagutzen zenuten?

Bernar: Ez genuen elkar ezagutzen. Baina bulegora joan nintzen aurreneko aldi hartan bi orduz egon ginen hizketan, hantxe, leihatilan!
Luis: 23 lagun aurkeztu ziren lan eskaintzara, eta sei aukeratu zituzten, azterketa egin eta gero; hiru emakumezko eta hiru gizonezko. Arrasateko zentraletik etorri ziren elkarrizketak egitera, hiru aztertzaile. Niri esan zidaten bertan izango nintzela, baina isilik egoteko. Bernar oso agresibo egon zen! Bankuen kontra, eta esanez bazekiela ez zutela hartuko...

Bernar: Ez dut uste hori esan nuenik! Gogoan dut galdetu zidatela ea zer pentsatzen nuen bankuan sartzeari buruz, ea zergatik aurkeztu nintzen lanpostu horretara. Ni baserrikoa izan naiz, eta horren inguruko ikasketak egin izan ditut beti.

Eta zer erantzun zenien?

Bernar: Iruditzen zitzaidala zerbitzu bat zela jendearentzat, eta lagundu ahal banuen, nire neurrian, bada, primeran. Jendearekin egoteko eta laguntzeko aukera bat zen. Nire ustez, gainera, hala da: banku batean lan eginda lagundu dezakezu, neurri batean noski, baina gauzak ezagutarazten, azaltzen... ordu asko behar dira horretarako.

Espero al zenuen zu hartzea?

Bernar: Ez nuen espero. Laboral Kutxa ez nuen ia ezagutzen, ez nintzen hango bezeroa. Nire senarra banku horretako bezeroa zen, eta berak esan zidan lanpostu bat atera zela. Ni ostalaritzan aritzen nintzen ordu hartan, denak bezala, eta lana aldatzeko asmotan aurkeztu nintzen lanposturako; orduetegi aldetik izugarria izan zen, eta distantzia aldetik ere bai, etxetik oso gertu nuen eta. Niri ostalaritza ere gustatzen zait, jendearekin sortzen den harremana, eta bankukoa ere bai. Bankukoa serioagoa zen, diruarekin ari zarelako...

Herritarren konfidenteak ere izan zarete, orduan?

Luis: Bai. Informazioa isiltzen jakin behar duzu, kontuak ezin dituzu nolana esan, gauza asko isilik mantendu beharrekoak dira. Eta jendeari ez diozu sortuko arazo handirik, ze bestela badakizu segituan egingo dutela alde eta kompetentziarengana joango direla. Hain gaizki ez genuen egingo, 30 urtean egin baitugu lan han.

Nola moldatu zineten hasieran lan egiteko orduan?

Bernar: Harreman handia izan dugu beti jendearekin. Lehen, hemengoak ginen langile gehienak. Nahi zuten bertan bizi zirenak izatea langileak.



Lekunberriko Laboral Kutxaren bulegoa. Arg: Labrit.

Gaur egun, aldiz, kanpotik etortzen dira lanera.

Luis: Ezaguna izateak ere bazuen alde txarra, kostu handia alde pertsonalean. Adibidez, laneko orduetatik kanpo, kanbio eske etortzen zitzaizkigun, kutxa automatikoa izorratuta zegoela esaten ziguten, txartela galdu zutela... etxera deitzen ziguten horretarako.

Bernar: Baina gero ikusten zenuen jendeak asko eskertzen zuela, eta guk ere eskertzen genuen abisatzea.

Zer lan egiten zenituzten?

Bernar: Denetatik. Hemengo jendea normalean nahiko kontserbadorea da, eta ez genituen produktu oso bereziak saltzen. Gaur egungo langileei behartzen diete ahalik eta gehien saltzea. Guk ere aurreikuspen batzuk genituen, baina ez genuen halako agresibitate saltzeko orduan. Ospe handia genuen mailegu asko ematen genituelako, hori esaten zuten behintzat; hemen mailegu asko eman izan ditugun arren, berankortasuna ez zen beste mundukoa.



Arrasateko zentrala. Arg: Laboral Kutxa.

“Banku batean lan eginda, herritarrei lagundu diezaiekezu; ordu asko behar dira horretarako”
Bernar Azpirotz

“Mailegu asko eman izan ditugun arren, berankortasuna ez zen beste mundukoa”

Bernar Azpirotz

“Neska batek 4 milioi pezeta ekarri zituen, plastikozko poltsa batean sartuta, egunkari zahar batean bilduta!”

Bernar Azpirotz

Zein izan ziren urterik emankorrenak?

Bernar: Urbanizazioak eta etxe berriak eraiki zituzten garaia, orain dela hemezortzi bat urte. Garai hartan hipoteka mailegu asko eman genituen, baina mailegu pertsonalak ere ematen genituen, denetatik. Akziodunak burtsan ere ibiltzen ziren.

Luis: Niri esan izan didate: “Edozeini ematen diozue dirua!”

Bernar: Ez zen hala, eta berankortasunak erakusten zuen ezetz. Bulegoan egiten genuen txostenak balio handia zuen; adibidez, mailegu eskaera egin ondoren ikusten zenuen bezeroak soldata baxu xamarra zuela portazioan, baina mailegua ordaintzea zela bere lehentasuna, bere ingurua ezagutzen genuelako genekien hori. Gure abantaila zen jendea ezagutu egiten genuela, eta jendearen ingurua. Horri esker jakiten genuen mailegua eskatzen zuena justu ibili arren familiak

babestuko zuela. Gaur egungo langileek zenbakiak baino ez dituzte ikusten, makinak ematen dion informazioa. Zerbitzua askoz inpersonalagoa da, eta txostenek gero eta balio gutxiago daukate. Guk bagenekien nork erosiko zuen auto bat, nork etxe bat, nork konponduko zuen etxea...

Sekretu asko zenekizkiten...

Luis: Askotan konfesoera esaten dena ginen, bai. Jende askoren berri izaten genuen, bulegoan esaten ziren gauzengatik.

Bernar: Informazioa da. Ezagutzen genituelako genuen informazioa. Ez ziren sekretuak, informazioa baizik. Baina ez bazara hemen bizi, ez duzu informazio hori, eta horretan denbora pila bat galtzen dute gaur egun langileek.

Nola aldatu da lan egiteko modua?

Luis: Dena aldatu da. Orain dela urte batzuetatik hona, Laborala baino lehen, beste banku batzuk kanpoko jendea hartzen hasi ziren. Guardia Zibilek herri bateko jendearekin konfiantza hartzen zutenean egiten zuten bezalaxe: lekuz aldatu! Gainerako bankuetan langileak aldatzen zituztenean, guri mesede egiten ziguten, guregana etortzen zirelako hango bezeroak. Jendeak nahiago du betiko jendearekin segi, ezezagunekin baino.

Bernar: Orain Interneten bidez bidaltzen dituzte eskaintzak, aseguruak eta halakoak, baina ez dituztenez bezeroak ongi ezagutzen, ez du funtzionatzen.

Luis: Saltzeagatik saltzen dute, zenbakieki begira. Langilea ezagutzen baduzu eta harremana baduzu harekin, edozein problema duzula ere harengana joko duzu.

Ba al zen dirua etxean gorde eta bankura dena batera eramaten zuenik?

Bernar: Hasiera hartan, orain dela 30 urte inguru, 4 milioi pezeta hartuta etorri zen emakume bat, auto-stop eginda.

Nondik?

Luis: Hori ezin dugu esan! Leitza baino urrutiagotik. Plastikozko poltsa batean zuen dirua, egunkari zahar batean bilduta; 4 milioi pezeta! Nire adinekora-edo izango zen, eskalea ematen zuen, eta, herrian buelta bat eman eta gero, bulegora sartu, eta galdetu zuen: “Zenbat pagatzen duzue dirua?” Nik azaldu nion zer baremo genituen, eta pentsakor geratu zen. Orduan esan zuen: “Bueno, eta lau milioirengatik, zenbat?” Eta nik: “Noiz ekarriko dituzu?” Eta neska: “Hemen dauzkat”. Harrituta geratu nintzen! Billeteak lizunduta zeuden, inoiz ez zuten eguzkia ikusi; auskalo noiztik zituen etxean!

Bernar: Horrelakoak pasatzen ziren, e! Behin baino gehiagotan ekarri ziguten dirua horrela; jendeak ez dakit non gordetzen zuen.

Dirua gorde, eta zer gehiago egiten zenuten?

Luis: Hasiera hartan hainbeste banku zeudenez, ez zegoen Laboralaren beharrik, eta hankak garbitu ez beste edozer egiten genuen! Errenta aitortpena egiten genuen, debalde, jubilatuei, mutilzaharrei eta neskazaharrei, egin ez gero atxikipena kobratzen baitzuten.

Bernar: Ikasleei bekak ere bete dizkiegu, paperak, BEZak, bulegoko lan guztiak. Gure teoria hauxe zen: pertsona bat edozein aitzakiarekin etortzen bada bulegora, gu edota bulegoa ezagutzen duelako izango

“Gure abantaila zen jendea ezagutu egiten genuela, eta haren ingurua; bagenekien familiak babestuko zuela”

Bernar Azpirotz

da, eta bezeroa ez bada ere, berdin-berdin emango diogu zerbitzua. Musika eskolen kuotak ere guk egiten genituen, Larraungo Eguneko bazkarirako txartelak saltzen genituen...

Luis: Herri txikietakoko festetako programak ere inprimatzen genituen! Trukean, gure logoa jartzen genuen programan.

Zer gehiago egiten zenuten bezeroak lortzeko?

Luis: Ireki eta segituan, ekoizpen arloko nagusia etorri zen bulegora, ataundar bat, Kalparsoro izenekoa. Tolosaldeko nagusia zen, eta esan zidan zerbait diferentea egin beharra zegoela, bezero gutxi genituelako. Galdetu zidan ea inguruan ez zegoen festarik, eta gutxira pilota txapelketa bat egitekoak ziren; Soroa, Juan Mari Mitxaus eta horiek parte hartuko zuten. Eta orduan esan zidan: “Grabatu egin behar diagu! Epean dirua gordetzen duenari bideoa erregalatuko zioagu gero”. Donostiatik etorri ziren bi mutil gazte grabatzera, eta ni lotsatuta! Bideoa egin zuten, eta hantxe joan nintzen inguruko herrietara bideoa erakustera, 127 autoan telebista tripadun horietako bat hartuta. Elkartean ikusten genuen, orain dela 40 urte inork ez baitzuen bideorik etxean. Gero, txangoak egiten hasi ginen.



Xuban, Mikel eta Leire, gaur egungo Laboraleko langileak Lekunberrin. Arg: Labrit.

Zuek antolatutako txangoak?

Luis: Autobusak betetzen genituen! Arantzazura eta Laboral Kutxaren Arrasateko zentrala bisitatzera joaten ginen.

Bernar: Jendeari pila bat gustatzen zitzaion zentralera joatea, ze oso leku polita da; bideo bat jartzen ziguten, eta bazkaria ere ematen ziguten.

Luis: Bilbora ere joan ginen, eta Gasteizera ere bai, granja batzuk ikustera.

Bernar: Autobus osoa ordaintzen zen. Bezeroentzat eta bezero ez zirentzat antolatzen genituen. Bezero ez zena bezero egiten zen gero. Bordelen egiten zen nekazaritza feria batera ere joaten ginen.

Anekdotak asko izango dituzue kontatzeko.

Bernar: Euskadiko Itzulian gertatutakoa anekdota polita da; erabaki genuen Luisi bromatik egin behar geniola: sari bat eman behar zuen, hemen bukatuko baitzen Euskadiko Itzuliaren etapa bat, eta Laboral Kutxak babesten zuen. Maillot horia jarri behar zion irabazleari. Idatzi bat egin genuen,

zentraleko batek idatzi izan balu bezala, esanez gorbatarekin joan behar zuela saria ematera, eta sinistu egin zuen! Ingurukoie gorbata bat eskatzen aritu zen, eta hala azaldu zen saria ematera.

Luis: Kioskora igotzean, denak behean zeuden zain, adarra jotzeko!

Garai txarrik izan zen?

Bernar: Banketxeen krisi garaia izan zen txarrena, 2008-2012 urte artean izandakoa. Bankuak ixten hasi ziren, eta gu banku txikia izanik, jendea galdezka etortzen zitzaigun, kezkatuta.

Luis: Banku batzuk fusionatu egin ziren; Laboral, esaterako, Ipar Kutxarekin fusionatu zen, eta indartsuago atera zen.

Zer oroitzapenekin geratzen zarete?

Bernar: Dena positiboa. Momentu batzuetan gogorra izan da, lan serioa delako, baina dena da positiboa niretzat.

Luis: Berriro ere hasiko nintzateke han lanean, eskatuko balidate. Halere, herrian lan egitean, publikoarekin motxila handi bat daukazu bizkarrean.

ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

CARPINTERIA HÑOS. AZPIROZ S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24

TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza

Antsoenea
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADI!!! TLF BERRIA:
948 51 30 32



'BERTATIK BERTARA' KANPAINA ABIARAZI DUTE UEMAK ETA ARAITZ ETA LARRAUNGO UDALEK

Hirugarren aldiz, bisitariak zein bisitariekin harremana duten zerbitzu sektoreko arduradunak eta langileak euskara aintzat hartzera gonbidatzeko kanpaina eginen dute uda honetan ere udalerrri euskaldunetan, tartean Araitzen eta Larraunen. Horretarako, hainbat baliabide prestatu dituzte: udalen webguneetarako eta sare sozialetarako bannerrak eta testuak, tabernetan eta jatetxeetan erabiltzeko mahai gainekoak eta bisitariak telefonoetan erabili ahal izateko hiztegia, besteak beste. Bertako produktuen, paisaiaren eta gainerako eskaintza zabalaren artean, udalerrri euskaldunen nortasuna egokien islatzen duena euskara dela nabarmendu nahi dute.

14



EGUN OSOKO FESTA IBARBERRI ESKOLAN

Haurrek nahiz helduek egun zoragarria pasatu zuten ekainaren 4ean Ibarberri eskolan, eskolaren eguna ospatu baitzuten. Goizeko 10:30ean ekin zioten egun bereziari, Aralar Musika Eskolako artistek herria alaiturik. Ondoren, erraldoiak eta kilikiak izan ziren, eta goizean ez zen jolasik faltatu: 1. eta 2. mailako ikasleak pista jokoan aritu ziren Beigorri metal detektagailuarekin, eta 3. mailatik gorakoak ginkanan lehiatu ziren. Arratsaldean, festak ez zuen etenik izan: bapo bazkaldu ondoren, zumban eta karaokean aritu ziren, besteak beste. Eguna borobiltzeko, apar festa egin zuten.



HERGARAI ETA ARAITZ IBARREN ARTEKO ELKARLANA SENDOTZEN

Urte hasieran, Hergarai ibarra ezagutzera joan ziren Araitzo herritar batzuk, eta, joan den hilean, Hergarai auzapezak eta hainbat herritar etorri ziren hona. Udaleko ordezkariak udaletxea erakutsi zieten, azaldu zieten zer lan egiten ari diren, eta, ondoren, ibarreko produktuak ezagutu zituzten: Azkarateko Balerdi jogurtaren ekoizpena azaldu zieten, Antsoenea gaztandegian ere bisita gidatu bat izan zuten, eta, eguna borobiltzeko, Gaintzako elkartearen bazkaldu zuten. Bi ibarrentzat aberasgarria izaten ari da elkar ezagutzera, eta espero dute elkarlan horren fruituak ematea aurrerantzean.



'BIDAIDE' ANTZERKI OBRAZ GOZATU ZUTEN 25 LAGUNEK BETELUN

Geuretik Sortuak egitasmoaren barruan, Metrokoa-droka antzerki konpainiako kideek *Bidaide* antzerki obra egin zuten Betelun ekainaren 17an. 25 lagun inguru joan ziren obra ikustera, eta barre egiteaz gain, zer hausnartu ere utzi zien. Gainera, herritar batzuek ere parte hartu zuten, tartean Idoia Garmendiak. Egitasmo horren barruan ere, abuztuaren 14ean Bonbon Beltz konpainiak *Harrimink* obra egingo du Araitzen. Bi helburu ditu Geuretik Sortuak egitasmoak: batetik, euskaraz egindako kultura bultzatzea; eta, bestetik, Euskal Herriaren historia modu kolektibo batean eta orainetik begiratuta kontatzea.

15

ZIGARI ELKARTEAREN 25. URTEURRENA OSPATUKO DUTE UZTAILAREN 23AN

1997. urteko uztailaren 5ean ireki zuten Beteluko Zigari elkarteak, eta, 25. urteurrena ospatzeko, bazkari eder bat antolatuko dute bazkideek uztailaren 23rako, elkartearen bertan, noski. Antolatzaileek adierazi dutenez, sorpresa txikiren bat ere izanen da. Tokia izanez gero, bazkideak lagunaren batekin joan ahalko dira. Uztailaren 10a baino lehen eman behar da izena bazkarirako. Gainera, terraza bat jarri dute, eta Elena Tomek eta Nerea Yeregik apaingarri ederrak egin dituzte.



TAILERREN BIDEZ, EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEN

Mintzakide egitasmoaren barruan, zeinak helburu duen euskara praktikatzeko aukera ematea eta euskaraz bizi nahi dutenak elkartzea, bi jardueren antolatze dituzte azken hilabete hauetan: maiatzaren 27an, sendabelarre buruzko saio bat egin zuten Lezaetan, Bakartxo Astizekin, eta ekainaren 12an, berriz, ogia egiten ikasteko tailer bat Lezaetako okindegian, Itziar Egidazurekin. Irudian, Lezaetako jarduerak.



Herritarren laguntza, arrakastarako giltza

Arrakasta izugarria izan du berriro ere Euskal Herria Mendi Erronka lasterketak. Zortzigarren aldiz antolatu dute aurten, eta 480 korrikalarik gozatu ahal izan dute antolatzaile eta boluntarioen prestutasunaz eta parajearen edertasunaz. Iñigo Oreja antolatzailearen arabera, herritarren laguntzarik gabe ezinezkoa litzateke lasterketa hori egitea.

Mikel de Carlos korrikalaria.
Arg: festak.com.



Beste lasterketa askoren kasuan bezalaxe, Euskal Herria Mendi Erronka mendi lasterketa ere bertan behera geratu da azken bi urteotan, pandemiaren ondorioz, eta antolatzaileak beldurrez hasi ziren lasterketaren zortzigarren aldia martxan jartzen, uste baitzuten akaso parte hartzaile gutxiago izango zirela. Halaber, berriro ere lasterketa ederra antolatzea lortu dute, beti bezain hunkigarria eta, haientzat garrantzitsuena dena, parte hartzaileak, herritarren laguntzarekin aurrera eramandakoa.

Balorzio positiboa egin du Iñigo Oreja errazkindarrak, lasterketaren antolatzaileetako batek: "Balorzio oso ona izan da, ikusita nondik gertozen, pandemiatik, eta kontuan hartuta azken bi urte hauetan ez dugula lasterketarik egin. Parte hartzaile nahikoak izan dira lasterketa aurrera ateratzeko, eta boluntarioen beldur ere baginen, ez genekielako laguntzeko prest egongo ziren, baina jende pila batek lagundu du azkenean". Hain zuzen, 580 lasterkerik eman zuten izena, baina 480k egin zuten ekainaren 4an Leitzako plazatik abiatu zen ibilbidea. Horietatik 100 lagunek baino gehiagok erreleboka egin zuten lasterketa; hasieran, 50 bikoterentzako ireki zuten izen ematea modalitate horretan, baina dortsal gehiago ematea erabaki zuten, eta beste 10 bikote animatu ziren korri egitera. Dena den, 260 korrikalarik lortu zuten lasterketa Leitzako plazatik hasi eta hantxe amaitzea, 67 kilometroko ibilbidea osatuz, eta erreleboka, be-

"Gure filosofia ez da lasterketa erreleboetara eramatea; erreleboka egiten dugu emakume gehiago animatzeko"
Iñigo Oreja

riz, 43 bikotek egin zuten ibilbidea erdibana.

Urtero ausartzen dira gure ibarreko batzuk Mendi Erronkan parte hartzera, eta aurten ere ez dira faltatu. Batzuek erretiratu egin behar zuten, baina beste batzuek, aldiz, lortu zuten helmugako marra pasatzea, dotore gainera. Mikel de Carlos lekunberriarra izan da inguruko loria-tsuen: 7. postua lortu du sailkapen nagusian, 7:33:34ko denbora eginda —irabazleak baino 36 minutu gehiago behar izan zituen ibilbidea osatzeko—. Adierazi du ez zuela espero bere aurreko markak hainbeste hobetzea: "Beste urteetan baino hobeki prestatuta nengoen, eta denbora hobetzeko asmoa neukan, baina ez nuen espero hainbeste jaitea; 7:57 zen orain arte egin nuen denborarik onena". 2016. urtean hasi zen De Carlos mendian lasterka, eta hirugarren Mendi Erronka izan du aurtengoa. Aurretik bizikletan ibili zen, futbolearen ere bai, baita triatlouetan ere sei-zazpi urtez, eta azaldu du azken urte hauetan hasi dela modu "serio-goan" mendian entrenatzen. Esan du hasieran hezetasun handia zegoen arren eta asko izerditu zuen arren, lurra lehorrak egon izanak asko lagundu ziola: "Dena dago oso lehor, korrika egiteko primeran. Hezetasuna nabaritu zen, lehenengo zatian batez ere, eta bigarren lehenengoaren ondorioak etorri ziren, kalanbreak-eta. Baina lurra espezial zegoen, korrika egiteko oso ongi".



Boluntarioak San Migelen. Arg: Asier Elizalde.



Ibarreko parte hartzaileak. Arg: Mikel de Carlos.

Emakumeak animatzeko

Mendizaletasuna eta feminismoa dira lasterketaren oinarrietako bi, eta, hain zuzen, bigarren horri bultzada bat emateko helburuz erabaki zuten antolatzaileek orain dela bi edizio lasterketa erreleboka egiteko aukera ematea: "Erreleboetan, ezinbesteko baldintza da bietako bat gutxienez emakumea izatea, hau da, bikoteak mistoa edo bi neskak osatutakoa izan behar du. Gure aldarrikapenen eta balioen barruan daukagu feminismoa, eta, horien artean, emakume gehiago animatzea lasterketan parte hartzea", nabarmendu du Orejak. Haatik, azaldu du Mendi Erronkaren ezaugarri nagusia 67 kilometroak direla, Leitzatik hasi eta bukatzen den lasterketa osoa, eta horri eutsiko

diotela aurrerantzean ere: "Gure filosofia ez da lasterketa erreleboetara eramatea. Erreleboka egiten dugu orekatzeko, emakume gehiago animatzeko".

Pandemiaren ondorioz izandako etenez gain, beste mehatxu bat ere izan zuten antolatzaileek, eta zalantza izan zuten Mendi Erronka egin ala ez: "Beste lasterketa bat azaldu zen panoraman, eta polemika izan genuen. Izan ere, gure lasterketaren ezaugarri berdinak zituen beste horrek, eta Mendi Erronkaren datatik oso gertu zegoen. Guk ez daukagu babeslerik ez ezer, eta izen ematei esker lortzen dugu lasterketa aurrera ateratzea; gero eta jende gutxiagok emango balu izena, ezingo genuke aurrekontu nahikoa lortu", azaldu du



Unakoputzuko anoa postua. Arg: Lontxin Zubillaga.

Orejak. Gauzak hala, antolatzaileen artean ere tirabirak izan zituztela esan du, batzuk lasterketa antolatzaileen aldekoak zirelako eta beste batzuk ez, baina azkenean, inguruko udalek hauspotuta baita ere, ausartu egin ziren, lasterketa egitearen aldeko apustua egin zuten, baita ongi irten ere.

Nola antolatu horrelako lasterketa bat babeslerik gabe? Urtez urte erakusten dute baietz, posible dela, eta elkarlana dela horretarako gakoa. Mendi Erronkaren kasuan, herritarrek bihurtzen dira boluntario eta antolatzaileen akuilu. "Herritarren la-

guntzarik gabe hau ezingo litzateke egin. Zortzi kide gara antolakuntzan, eta bakarrik ezingo genuke. Ibilbide oso luzea da, eta bai egunean bertan, bai aurretik ere da beharrezkoa jendearen laguntza. Jendea beti dago laguntzeko prest", azpimarratu du errazkindarrak. Ez da kasualitatea korrikalariak ere boluntarioen lana eta babesa nabarmentzea urtero, lasterketaren edertasunarekin batera, ibilbidean jende pila bat ikusten baitute. De Carlosek ere boluntarioen lana goraiatu nahi izan du: "Antolaketa primerakoa izaten da; horiek bai egiten duela lan! Guk disfrutatu egiten dugu, gustatzen zaiguna eginez, baina haiek ibilbidea prestatzen dute, bideak garbitzen dituzte, anoa guneeetan ere laguntzen dute, helmugara iristean galdetzen dute ongi al zauden... dena oso ongi antolatuta dago".

Aurtengo lasterketaren arrakastak antolatzaileei balioko die hurrengoari gogotsu heltzeko, baita boluntarioei eta korrikalariak ere. Lasterketaz harago, baina, Orejak azaldu du gero eta jende gehiago ikusten duela mendian, kristoren afizioa sortu dela, eta oso pozgarria dela hori beretzat: "Ikusi dugu sartu dela har hori, gazteengan gehienbat, eta gozada bat da hori ikustea". Iraun dezatela luzaroan, beraz, mendizale-tasunak, elkarlanak eta Euskal Herria Mendi Erronkak.

"Denbora hobetzeko asmoa neukan, baina ez nuen espero hainbeste jaitea"
Mikel de Carlos

●● Izaskun Gastesi – Euskal Herria Mendi Erronkan omendua

"Hunkigarria izan da norbait gure garai haietako erronkaz gogoratzea"

Gorritiko Izaskun Gastesi euskara irakaslea omendu dute aurtengo Euskal Herria Mendi Erronka lasterketan. 1960ko hamarkada hasieran hasi zen hurrei euskara irakasten, titulurik gabe eta deus ere kobratu gabe. Gogoan du haren amari barre egiten ziotela erdaraz ez jakiteagatik.

Gorritiarra izatez, baina Iruñean bizi. Noiztik?

18-19 urterekin Gorriti utzi nuen. Nire lehengusu bat hasia zegoen ikasle batzuekin euskara irakasten, eta urtetik urtera geroz eta ikasle gehiago zituzten. Irakasle bila zebiltzan, baina garai haietan zaila zen irakasle eskaldunak aurkitzea. Niregana jo zuten, eta ezin izan nien ezetz esan. Dena utzi, eta buru-belarri sartu nintzen horretan. Eusko Bazterra izeneko mendigoizaleen elkarte batera joan ginen, San Jose plazara, hain zuzen.

Zer adinetako ikasleei irakasten zenien?

Titulurik gabeko jende asko zegoen, eta ikastaroetan eta 25 urtetik gorakoentzako unibertsitateko gradutan aritu ginen ikasten. Nik txikiei irakasten nien, 3 urtekoei. Lurrean aritzen nintzen txikiekin jostaketan, kantatzen, eta txotxekin irakasten nien; txotxak ziren gure materiala. Zegoenarekin moldatu behar izaten genuen; soldatarik ere ez ziguten ematen hasieran. Kristoren giroa zegoen, gurasoak oso konprometituta zeuden euskararekin, eta gu zer esanik ez. Herritik sortu den zerbait da, eta, gainera, abertzale jendea zen orokorrean.

Zenbat denbora eman zenuten horrela?

Bizpahiru urte egin genituen San Jose plazan, eta gero Baiona etorbidera joan ginen, beste ezagunen baten etxabera. Hura lokal handiagoa zen, eta haur dezente genituen ordu hartan. Bi irakasle egoten ginen 3 ur-

teko hurrekin, eta Irintzi Dorrean ere egoten ziren beste batzuk. Ikasle kopurua handituz ari zela, eztabaidak eta gorabeherak izan genituen gure artean, nire ustez gogoeta politikoak zirenak, eta zatiketa etorri zen: batzuk Paz Ziganda ikastolara joan ziren, eta besteak San Fermin ikastolara.

Zu nora joan zinen?

Ni San Ferminera joan nintzen, eta han aritu naiz erretiroa hartu arte. Poliki-poliki, gure langile egoera normalizatzen hasi ginen, eta gurasoek ere jarri behar zuten zerbait; gauza garrantzitsuak lortu genituen. Lan hitzarmen bat ere bai, eta langileen eskubideak ere oso ongi lotu genituen.

"Zegoenarekin moldatu behar izaten genuen; dirua ematen zigutenean, materiala erosten genuen"

Zer egoeratan dago orokorrean euskara Iruñean?

Hobetu egin da, baina oraindik asko falta da. Euskaltegiak daude, ikastolak ere bai, D eredia ere sartu dute eskola dezentetan, baina ez dakit nahikoa ote den.

Euskara irakasle izandako hiru emakumeri egin dizuete omenaldia aurtan. Nola hartu zenuen berria?

Oso ongi hartu nuen. Nik eskolan ez nuen ulertzen zergatik ezin genuen egin euskaraz; ez genekien besterik.

Amarekin Lekunberrira joaten nintzenean erosketak egitera, barre egiten zioten, ez zekielako erdaraz. Erdi negarrez itzultzen nintzen etxera.

Beste bi omenduak ezagutzen zenuen?

Kontxi Zabaleta bai, San Fermin ikastolan aritu baitzen hura ere. Eta Kontxi Beitia ere ezagutzen nuen; denbora asko zen ikusten ez nuela, baina ikastaroetatik-eta.

Polita iruditu zitzaizun Leitzako plazan elkartzeari?

Oso polita. Gainera, xume-xumea egin zuten, mezua oso polita izan zen, aurrekua, oparia... Hunkigarria izan da norbait gure garai haietako erronkaz gogoratzea, eta ongi ateratako erronka da, emaitza ikusten baita orain: zenbat ikastola dauden Euskal Herrian, eta Iparraldera ere hedatu da. Merezki izan zuen, kobratu gabe ibilita ere.



Izaskun Gastesi omenaldian. Arg: festak.com.

IORTIA CLINICA DENTAL · HORTZ KLUBIKA

Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKEKAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

“Taldea loratzen ari da”

Gabezin musika taldeak bere lehen diskoa argitaratu du: ‘Korapiloak’. Hainbat estilotako kantak bildu dituzte, eta bideoklip bat ere egin dute singlearekin. Beñat Pellejero taldeko akordeoi jotzaileak azaldu du ilusio handiz ondu dutela diskoa, eta jendea dantzan ikusteko irrikan daudela.



Zuen aurreneko diskoa, kalean. Pozik zaudete emaitzarekin?

Pixka bat kostatu zaigu, baina gustura gaude. Beti pentsatu izan dugu gure kantek balio ote zuten disko baterako, orain arte beste talde batzuen bertsioak-eta jo izan ditugulako, eta ez genuen denborarik hartzen gure kantuak egiteko, erabat aritzen ginen kontzertuetan edota entseatzeko... pandemia iritsi zenean, kontzertu guztiak bertan behera geratu ziren, eta orduan esan genuen: orain aprobetxatuko dugu gurea egiteko.

Pandemian sortutako diskoa izan da, beraz?

Ikusi genuenean luzerako zihoala, behintzat hastera erabaki genuen; gure kantak egiten genituen aurreneko aldia zen, eta ez genekien gai izango ote ginen ere. Hasi ginen, eta ikusi genuenean hiru-lau kanta nahiko txukun genituela, pentsatu genuen: zergatik ez dugu CD bat kaleratzen? Eta, azkenean, aurrera ateratu dugu.

Nor arduratu da hitzez, melodiaz...?

Denen artean egin ditugu. Gehienetan, Ainhoa edo nik eman izan dugu ideien bat, eta gero denen artean osatu dugu. Ainhoarenak dira kanta gehienak hitzak, eta nik ere

idatzi ditut gutxi batzuk. Asteberu pasa bat egin genuen Aralarren, nire txabolan, eta egun horietan bakoi-tzak bere ideiak eman zituen, eta erabaki genuen zerekin egin aurrera eta zerekin ez.

Korapiloak izena du diskoak.

Erabaki genuen berdina izango zela diskoaren izena eta singlea. Kanta horrek dio askotan zoriontsu izateko ez duzula beste inoren mende egon beharrik, eta zeure buruarengan pentsatu behar duzula; zoriontsu izateko zeure buruari begiratu behar diozula, eta dituzun barne korapiloak askatu. Horregatik jarri genion izen hori.

Zenbat kanta ditu denera? Zer estilotakoak dira?

Hamar kanta egin ditugu, estilo guztietakoak. Erromeria disko bat da; fandangoa, arin-arina, balsa, rantxera, kalejira... izango ditu, baina baita ska eta reggae estiloko kanta batzuk ere.

Bideoklipa ere egin duzue singlearentzat; Azkuen grabatu duzue, gainera.

Kantak esaten du estresak jota bizi garela, beti errutina berari segituz, eta zoriontsu izateko errutina hori puskatu behar duzula, zeure buruarengan pentsatu. Bi protagonista

“Erromeria disko bat da, baina ska eta reggae estiloko kanta batzuk ere baditu”

ditu bideoklipak: bat hiriko pertsona bat da, estresatuta bizi dena, eta bestea herri txiki bateko ohiturak dituena, herriko lanak egiten. Oso pozik gaude emaitzarekin, eta badi-rudi jendeari gustatu zaiola. Begi Bat Zabalik enpresak grabatu du.

Zer esan nahi du azaleko loreak?

Kaktus baten lore bat da; kaktus mota asko daude, eta batzuk urtero loratzen dira, beste batzuk bost urte ere behar izaten dituzte, beste batzuk hogeitun urte... horixe da gure taldearen metafora: hamalau urte daramatzagu jotzen, eta, orain, loratzen ari gara. Ez dakit taldea punturik gorenean dagoen, baina bai puntu desberdin batean. Bi urtez geldirik egoteak berpizteko ilusioa ekarri digu. Talde askori, aldiz, kontrakoa pasa zaie: taldea uztea erabaki dute. Baina guk aurrera segitzea erabaki genuen, gure kantuekin, gainera.

Aise esaten da hamalau urte...

14-16 urterekin hasi ginen. Denak Aritz-Betelukoak ginen hasieran, eta gurasoek lagunduta joaten

ginen kontzertuak jotzera. Hobbeye gisa hasi zen dena; musika eskolan ikasten genuen bost lagun elkartu ginen, eta inguruko herrietatik deitzen hasi ziren. Irabazten genuen diruarekin ekipoa erosi genuen, eta, pixkanaka-pixkanaka, gero eta toki gehiagotatik deitzen ziguten. Haziz joan gara.

Makina bat plaza eta pertsona ezagutuko zenuten urte hauetan guztietan, ezta?

Jende asko ezagutu dugu. Plaza asko urtero errepikatzen ditugu, eta, horregatik, asko ezagunak dira jada. Herri afarrietan ere izaten gara, eta halakoetan ere egiten ditugu harremanak.

Nola izan da grabaketa prozesua?

Iruñean grabatu dugu, Josu Erbitirekin, eta asko lagundu digu. Kantak asko aldatu dira hasieran genuen ideiatik: batzuk moztu, efektuak sartu, estiloa aldatu... Astebetean grabatu genuen dena, astelehenetik igandera.

Kolaboratzaile batzuen laguntza ere izan duzue, ezta?

Bai. Txalaparta, mandolina eta alboka sartu ditugu. Ezagun batzuek lagundu digute.

Eta taldekide berri bat duzue...

Iruñeko neska bat hasi da baxua jotzen, June. Zazpi gara taldean orain. Joseba eta biok gara hasiera-hasieratik gaudenak; Ainhoa urtebete geroago hasi zen. Bost



Gabezin taldeko kideak. Arg: Beñat Pellejero.

“Bi urtez geldirik egoteak berpizteko ilusioa ekarri digu”

aritzen ginen lehen, baina tronpeta eta tronboia gehitu genituen gero, Andonik saxoa utzi zuenean. Betelun geratzen gara entseatzeko, astean behin normalean. Kontzertuekin hastean ez dugu askorik entseatzeko, baina diskoa prestatzeko astean bi aldiz-edo geratu gara.

Uda da; horrek esan nahi du jo eta ke arituko zarete orain?

Kontzertu asko lotuta ditugu dagoeneko; inoiz baino kontzertu gehiago emango ditugu, nik uste. Nabaritzen da bi urtez geldirik egon garela... jendea gogotsu dago, eta gu ere bai!

Kontzertuetan diskoko kantak adituko dira?

Betiko kontzertuak joko ditugu, baina tarteka gure kantak sartuko ditugu.

Zer da Gabezin zuretzat?

Nire bizitzako parterik garrantzitsuenetako bat da, eduki dudana zaletasunik handiena, bizi erdia daramat bertan! Batzuei kirola gustatzen zaien bezala, ni txikitatik izan naiz musikazalea. Txikitatik hasi nintzen akordeoia jotzen, eta oraindik ere horretan segitzen dut.

Non eskuratu daiteke diskoa?

Plataforma digital guztietan dago (Spotify, Youtube...), eta disko fisikoa nahi duenak gutako bati eskatzea besterik ez du. Aritz-Beteluko dena eta tabernetan ere eskuragarri egongo da.

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889

AMAIRU BAR

ETXKO PIZZAK, KOPA BEREZIAK

948504352

ALIPROX

Lekunberri janaridenda

hamabostaldi eskaintza bereziak

CONSTRUCCIONES ERAIKUNTZAK CONSTRUCCIONES URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK FATXADAK ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri

UITZI



Kaskamotz Eguna espektatiba guztiak gainditu ditu

Eguraldia lagun, jendea pozarren, eta giro alaian ospatu zuten Uitzin Kaskamotz Eguna ekainaren 11n, haur minbiziaren ikerketarako dirua biltzea helburu. Familiak, gazteak nahiz aitona-amonak izan ziren plazan, eta, espektatibak gaindituta, 35.000 euro lortu zituzten, webgunearen bidez egindako dohaintzen, ekintzetarako izen emateen eta egunean bertan egindako salmenten bidez. Jaione eta Raul antolatzaileek, Luarren gurasoek, eskerrak eman nahi izan dizkiete parte hartzaile guztiei eta baita La Mugiroarrari eta Larraungo Udalarari ere, autobus zerbitzua jartzeagatik. Hona hemen egunean bertan zozketatutako sorten saridunak:

SORTA	ZENB.	SORTA	ZENB.
1	2133	14	5640
2	6279	15	3615
3	2127	16	1663
4	2130	17	4468
5	251	18	301
6	483	19	1523
7	1292	20	3625
8	225	21	1638
9	1398	22	1379
10	3093	23	3448
11	3086	24	3396
12	467	25	4798
13	1766	26	615



LARRAUN

Juan Miguel Etxarri eta Maria Victoria Urtasun omendu dituzte Larraungo Egunean



Giro ezin hobean ospatu zuten ekainaren 17an Oderitzen eta ekainaren 18an Lekunberrin Larraungo Eguna. Oderizko frontoian afari autogestionatua egin zuten, eta Patxuko Nice eta Burutik taldeen kontzertuekin borobildu zuten eguna. Larunbatean, berriz, pilota partidak, Musika Eskolaren emanaldia, Tirikitauki taldeko dantzarien ikuskizuna, bertso bazkaria, jolasak eta Trikitiens taldearen kontzertua izan zituzten.

LARRAUN-LEKUNBERRI

Aralar Udal Musika Eskolak kontzertu artean amaitu du ikasturtea

Ikasturte amaiera oparoa izan da Aralar Udal Musika Eskolarentzat. Izan ere, ekainean emandako hiru kontzertuez gain, beste emanaldi eta egitasmo batzuetan ere parte hartu du; hain zuzen, Uitziko Kaskamotz Egunean, Lekunberriko elizan egindako Boliviako Ensemble Moxos kontzertu omenaldian, Larraungo Egunean eta Iruñeko Txistulari Gazteen IV. Kontzertuan ere izan dira. Mendukiloko kobazuloan egindako emanaldiarekin amaitu dute ekaina; Fanfarreko kideak kobazuloa bisitarekin gozatu zuten, eta, nola ez, fanfarreko musika jo zuten.

Hasteko, ekainaren 3an, Haur Hezkuntzako 4, 5 eta 6 urteko haur txikiak Patxiren botila ikuskizuna eman zuten Lekunberrin, Ibarberri Eskolako patioan. Ondoren, ekainaren 14an eta 16an, Ahotsa kontzertu tematikoa izan zen Ibarberriko patioan eta Arribe-Atalluko frontoian. Bertan musika tresnak eta abesbatzako 130 ikaslek parte hartu zuten. Hauek izan ziren landutako gaiak eta kantuak: emakumea *Konplize ditut eta*, txirotasuna *Another day in Paradise*, arrazakeria *Biko*, gerra *War*, alzheimerra *Cordones de mimbres*, haur minbizia *Piraten indarra*, autismoa eta aniztasun funtzionala *Marea urdina*, munduaren hobekuntza *Heal the world* eta genero identitatea *Naizen*.



Altzariak, telebistak, etxetresnak... ez utzi kalean botata!



GARBIGUNEETAKO ORDUTEGIAK

Goizuetako Garbigunea

- > Astelehenak: 14:00etatik 16:30etara
- > Hilabeteko lehendabiziko larunbata: 9:30etatik 13:30etara

Leitzako Garbigunea

- > Astearteak: 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:30etara
- > Ostegunak: 15:30etatik 19:00etara
- > Hilabeteko bigarren larunbata: 9:00etatik 14:00etara

TRASTE HANDIAK BILTZEKO ZERBITZUA

948 51 04 44 telefonora deitu eta etxetik **DOAN** jasoko dizugu. Nahiago izanez gero, garbigunera zuk zeuk ere ekarri dezakezu.



Merialdea Mankomunitatea info@merialdea.eus 948 51 04 44

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitarakoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologia
Laser-depilazioa eta depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpainetan
Mikroblading bekainetan

“Berriro joango banintz, gehiago saiatuko nintzateke probetan”

**Finaletik hiru egunera utzi behar izan du Joxerra Aldaregia 'Pirris' lekunbe-
rriarrak ETB2ko 'El conquistador del Caribe' saioa. Oso pozik dago egin duen abenturarekin, eta talde ezin hobea izan duela uste du. Gosea izan du etsairik handiena.**

Telebistan, irratian... gelditu gabe zabilta azkenaldian. Kostatu zaizu kameraren aurrean jartzea?

Han ere hasieran kosta egiten zitzaidan kamera asko zeudenean. Kanpamentuan bat bakarrik zegoen, eta ez nuen asko hitz egiten, baina asanbleatan eta probetan erabat aritzen nintzen pentsatzen zer esango, eta edozer esaten zenuela ere, zerbait esaten zizuten bueltan.

Nola ikusi duzu zure abentura etxetik?

Ongi, gustura nago egindakoarekin. Halere, ez zait gustatzen neure burua telebistan ikustea, oso arraroa egiten zait. Baina pozik nago, eta ezagutu dudan jendearekin ere oso pozik. Hamar-hamabi pertsona ginen taldean, bakoitzak bere ohiturak eta maniak zituen, eta ez dugu behin ere diskutitu.

Probetan, zer moduz?

Nahiko aparte mantentzen saiatzen nintzen, ez nuen protagonismorik nahi. Orain, kanpotik ikusita, gehiagotan saiatuko nintzateke, ze probak berez politak dira. Nire asmoa zen muturra ez sartzea eta egunez egun aguantatzea, ahalik eta gehien, baina berriro joango banintz, gehiago saiatuko nintzateke, nahiz eta etxera bidali.

Egia da etxetik ikusten dena? Hori bakarrik jaten duzue?

Bai, ez dago tranparik. Aurreneko bost egunetan ura bakarrik eman ziguten, beste deus ez, eta aurreneko proba irabaztean ematen zizuten kit bat: zazpi atun lata, zazpi sardina lata, arroza pixka bat, fruitu lehor batzuk eta tea, baina tea deuserako, niri ez zitzaidan gustatzen eta ez genuen edaten. Egunean lata bat jaten genuen, goizean erdia eta gauean beste erdia.

Aspertuko zinen, hainbeste ordu deus egin gabe...

Hori izan da okerrera. Ez ziguten kanpamentutik ateratzen uzten, eta batzuetan bi egunez egoten ginen hor, deus egin gabe. Langileek esaten dizute gauza bat eta beste egin dezakezula bitartean, baina ez genuen ezertako gogorik, lehertuta ginen, jan gabe, eta lo ere gaizki egiten genuen. Eltxoetara ere ez zara ohitzen, oso gaizki pasatzen da hozkekin, erabat atakutzen dute, eta gainera hozkak min handia ematen du, ezpak hozkatzen zaituenean bezala.

Askok “unga-unga” taldea bezala deskribatu zaituztete.

Oso kontentu nago tokatu zaidan taldearekin, eta ez da hala izan, jendeak hori esan arren. Denak laguntzeko prest zeuden, eta ez gara haserretu, izugarria izan da. Probarako kontzentratuta jartzen ginen, eta denok

laguntzen genuen elkar. Kanpamentuan ginenean hona bueltatzean egingo genuenari buruz hitz egiten genuen, bazkariari buruz eta holakoei buruz, baina abenturaz ia ez genuen hitz egiten.

Castingean esan zenuen ez zenuela nahi Andrea izaterik zure kapitaina, eta zein eta bera kapitain.

Uste nuen gaizki moldatuko nintzela Andrearekin, baina harreman ona izan dugu. Nik Seleta tokatzea nahi nuen. Igual gero okerrago izango zen, ze erotu egiten da probetan, baina %300a ematen du beti, eta asko laguntzen dio bere taldeari, abantaila handia da. Indarra dauka, azkarra da, eta zakurra ere bada horrelakoetarako.

Zer gertatu zen Arantxa iritsi zenean bigarren kapitain bezala?

Arantxarekin oso gaizki egon ginen. Ez genion txarrik egiten, kanpamentuan normal egoten ginen, baina gero erredaktoreengana joaten zenean keinuak egiten ikusten genuen, auskalo zer esaten, eta probetan denak berdin zion. Bazekien hiru egunerako heldu zela, eta gaizki jokatu zuen.

Eta Aitzolekin?

Aitzolekin dena oso ongi. Inork ez zuen ezagutzen! Esango zuen, nora etorri naiz? Egun horretan gainera denak lur jotan geunden, eta proba irabazi nahi genuen kanpamentu ilun hartatik ateratzeko.

Zein taldekidearekin moldatu zara hobekien?

Ibanekin eta Peñarekin. Ibanekin ere asko egon naiz, baina azkeneko fasean Peñarekin gehienbat, Ibanek utzi egin behar izan zuelako. Pena handia eman zidan Ibanenak. Uste genuen berak irabaziko zuela. Ez zen batere berekoa, zekien guztia esplikatzeko eta erakusten zigun gainerakoei.



“Ez diot inori ezer kontatu; gurasoek ez zekiten noiz bukatu nuen”

Bueltatu zinenean, zer izan zen egin zenuen aurreneko gauza?

Etxean kristoren afaria, eta gero Ilargi tabernara joan nintzen trago bat hartzera.

Mingainari hozka egin behar hangoa ez kontatzeko?

Ailegatzean dena kontatzeko gogoz zaude, baina gero deus ere ez, lasaitu egiten zara. Nik ez diot inori ezer kontatu.

Gurasoek ez zekiten noiz bukatu nuen. Bazekiten dezente aguantatu nuela deitu zietelako bideoa egiteko, eskutitzak idazteko... baina ezin nuen deus esan. Hobe da hola gero ikusten duenarentzat. Uste nuen trago batzuk hartuta kontatuko nuela, baina ez!

Nork nahi zenuen irabaztea?

Ez nuen lehenago jakin zeinek irabazi zuen. Nik Jokinek irabaztea nahi nuen, gelditzen zirenetatik, eta Lrik, noski.

Kemen Aldabek parte hartu zuen, orain zuk... inguruko nor animatuko zenuke?

Oier Igartuari esan izan diot animatzeko. Jenio handia dauka, baina ongi moldatuko litzateke. Hemen berez ez gara kirolariak, baina berezko enantzua daukagu.

“Egunean lata bat jaten genuen, goizean erdia eta gauean beste erdia”



Utzi egin nau

Nire bikotea izandakoak gure harremana amaitzea erabaki osteko lehen egun hauetan, min handia, tristura eta haserrea sentitzen ditut eta etengabe egozten diot gauza askoren errua. Biktima sentitzen naiz.

Bera ez egoteak uzten didan hutsunea betetzen dut orain bera errudun eginez eta ni biktima sentituz, hutsune horri eutsi beharrean. Orain hutsunea bizi behar dut eta neure burua biktimizatzen ikustean, hutsu-neari eusteko zailtasuna dela aitortzen dut. Argi dago hutsune hori biziazio baxuko pentsamendu eta sentimendu ilunekin betetzen ari naizela. Horiek guztiak alde batera uztea da, bestalde, nire argira itzultzeko bidea.

Hala ere, hau ez da lehenengo aldia, eta beste batzuetan berdin jokatu dut. Izan ere, sarritan gaizki tratatu nautela sinetsi dut. Behin eta berriz itzuli izan naiz diskurtso biktimizatzaile berdinetera. Aldi berean, zoriontasuna, bikote harreman zoragarria, oparotasuna, bizitza hobea izan nahi ditudala esaten dut aho txikiarekin. Baina nire bizitza aldatzeko, nik neuk errotik aldatu behar dut. Bidea ez da besteen ergelkeria, zailtasun eta abarrekiko adi egotea berriro minik ez hartzeko. Neure buruari etengabe errepikatzen badiot arazoa beste pertsonak direla, aldaketarik ez da iritsiko. Norbait aldatzekotan, neuk aldatu beharra daukat, alegia, nire bizitzaren erantzukizun osoa hartu behar dut.



OHIKO FESTAK OSPATZEKO GOGOZ!

Hasi dira udako herrietako festak, eta nabari da jendea gogotsu zegoela. Lekunberrin sanjoanak ospatu dituzte, eta Betelun eta Mugiron, berriz, San Pedro jaiak. Kontrazalean daude gainerako herrietako festetako egitarauak.



Araitz-Beteluko dantzariak. Arg: Labrit.



Paellada Betelun. Arg: Leire Aizpurua.



Mus eta partxis txapelketa Betelun. Arg: Labrit.



Kronoeskaladako parte hartzaileak. Iaz egin zuten aurrenekoz. Arg: Leire Aizpurua.



Kaos Etilikoren kontzertua Mugiron. Arg: Labrit.



Mugiroko Erronda. Arg: Joxe Enrike Beraio.



Erraldoiak Lekunberrin. Arg: Labrit.



Garagardo azoka Lekunberrin. Arg: Labrit.

Astizko Aterpea martxan jarri nahi du berriro Kontzejuak

Uztail erdi aldera irekiko dute lehiaketa publikoan parte hartzeko epea. Aterpea berritzeko lanetan aritu dira azken bi urteotan, eta 75.000 euroko aurrekontua izan dute horretarako. Orain, 70 lagunentzako tokia dauka.

Astizko Aterpea haur nahiz heldu askoren zerbitzura egon da 22 urtez, baina pandemia iritsi zenean, orain dela bi urte, aterpearen ardura zutenek ixtea erabaki zuten, eta halaxe egon da orain arte. Ateak itxita izan

ditu orduz geroztik, ez du zerbitzurik eman, baina aterpearen barruan izan da mugimendurik; izan ere, Astizko Kontzejuak itxialdia aprobetxatu du aterpea berritzeko eta lege berrietara egokitzeko; irailerako bukatu

nahi dituzte lanak. Aterpea berpiztea dute helburu, eta lehiaketa publiko bat abiatuko dute uztail erdi aldera. Instalazioaren ardura hartzen duenak ostatua nahiz aterpea kudeatu beharko ditu, 10 urterako kontratua lortuko du, eta urtean 13.000 euroko errenta ordaindu beharko du. Dena den, bi urte izango ditu proba egiteko, hau da, aterpea bideragarria dela ikusteko, eta, bestela, kontratua bertan behera uzteko aukera izango du.

75.000 euroko aurrekontua izan dute eraberritze lanak egiteko; besteak beste, Nafarroako Gobernuaren diru laguntza bat jaso dute, berrehun biztanle baino gutxiagoko herrien garapenerako diru laguntza bat, hain zuzen —50.000 euro—. Kontzejuko kideek azaldu dutenez, obrak oso luze joan dira, eta sukaldia handitzeko lanek hartu dute proportzioan diruaren zatirik handiena. Horrez gain, kozinatzeko gailu berriak ere erosi dituzte, komunak erabat berritu dituzte —elbarritutako pertsonentzako egokituak dira orain—, jantoki baten zapaia ere berria da, eta lo geletan ere badira aldaketak: literak legeak zehaztutakoaren arabera dira orain, hau da, banakakoak, eta tarreak utzita jarrita daude. 70 lagunentzako oheak daude, bi eraikinetan banatuta. Kontzejukoek adierazi dute Nafarroako aterperik handienetakoa dela Astizkoa, hau da, ohe gehienetarikoa dituen; oro har, inguruko aterpeek 50 lagunentzako tokia daukate, gutxi gorabehera. Ostatuaren zatiari dagokionez, 95 laguni zerbitzua ema-



teko prestatuta dago, eta aterpearen arduradunak ostatua nahiz aterpea kudeatu beharko ditu, hau da, irekita egon beharko da beste zerbitzu hori ere.

Inguruan duen eragina

Astiz 23 biztanleko herri bat izanik, kontzejukoek uste dute aterpeak izugarriko eragina duela herrian, eta bizitasun handia ematen diola. Eskoletako haurrak, familiak edota kuadrillak aterpera joateak herriaren bizitza soziala handitzen zuela deritzote, eta inguruko zerbitzuetan ere onurak zituela: esaterako, Mendukiloko kobak ikustera joaten ziren Astitzen aterpe hartzen zuten askok eta askok, eta, kontzejukoek azaldu dutenez, aterpearen itxierak koben bisitari kopurua jaistearen ekarri du —esan dute kobazuloetako bisitarien %20 inguru aterpetik joaten zirela, 3.000 haur inguru urtean—. Lekunberriko eta Larraungo udalen instalazioetan ere izan du eragina, besteak beste, eskolek txango asko antolatzen zituzten pistinetara, Lekunberriko abentura parkera edota kiroldegira.

Herriaren esfortzua

Aterpea herriko eskola izan zen garai batean. Herriak dirua behar zuen, eta saltzea erabaki zuen. 1990. urtean, mendizale batek erosi zuen, Iñaki Aldaiak, eta aterpe gisa jarri zuen martxan. Halere, oso gutxi iraun zuen irekita, eta bankuak aterpea kendu zion mendizaleari. Hala, 1996an herriak erosi egin zuen berriro ere, baita ireki ere. 2001ean, beste eraikina erostea erabaki zuten, ostatu zaharra zena, eta bi eraikinak aterpearen parte bihurtu ziren. Kontzejuko kideen arabera, herriak denera 600.000 euroko inbertsioa egin du urte hauetan guztietan aterpean, aintzat hartuta 100.000 euro diru laguntzak izan direla. Nabarmendu dute oso inbertsio handia dela horren herri txikiarentzat, eta datu horiei erreparatuta ikusten dela zer-nola garrantzia daukan herritarren artean ere.

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 659-79 64 45 telefono zenbakira edota idatzi joxemiel100@gmail.com helbidera.

Ostatua nahiz aterpea kudeatu beharko dira, eta errenta 13.000 eurokoa izango da

Aterpearen bigarren eraikina. Arg: Labrit.



 <p>aseguru gintza XXI</p>	<p>ASEGURU AHOLKULARIAK</p> <p>Zure ondarea eta segurtasun babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da</p> <p>► aseguruak@aseguruak.eus</p> <p>► 943 65 22 20</p> <p>► Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa</p>	 <p>urrutia enea</p> <p>etxeko hestekiak</p> <p>LEKUNBERRI</p>	<p>INFORMATIKA ARALAR</p> <p>LEKUNBERRI - ARAITZ LARRAUN</p> <p>JALMENTA ETA KOMPONTEZA</p> <p>634 551 743</p> <p>infoaralar@gmail.com</p> <hr/> <p>SAN MIGUEL</p> <p>Taberna-Jatetxea</p> <p>Arribe</p> <p>948 51 31 34</p>
--	---	---	--

MUSIKAZ BLAI: NAFARROAKO IPAR-MENDEBALDEAN EUSKARAZKO MUSIKA ZABALTZEKO EGITASMOA

Ezagunak edo erreferentzialak diren hainbat herritarrek proposatutako euskarazko kantu zerrendak zabalduko dira, bertako komunikabideen eta *elaide.eus* webgunearen bitartez. Berziki gazteen artean zabaldu nahi da, baina baita publiko orokorrari begira ere. Hiru herritarrek proposatutako kantu zerrendekin abiatzen da.

Helburuak

- Euskarazko musika zabaltzea eta entzule berriak irabaztea.
- Euskaraz aritzen diren eskualdeko musika proposamenak gizarteratzea.
- Euskaraz aritzen diren musika talde eta estilo berriak gizarteratzea.
- Euskarazko musika proposamenen aniztasuna gizarteratzea (musika estiloak, emakumeen presentzia, belaunaldi ezberdinak...).

Abiatzeko hiru kantu zerrenda

- Irantzu Pastor Ordoki, argazkilaria (Lesaka)
- Arkaitz Mindegia Baleztena, musikaria (Aurtitz)
- Aritz Ganboa De Miguel, artzaina (Arruazu)

Ondoko hilabeteetan herritar gehiagok egindako kantu zerrendak gehituko zaizkio egitasmoari.



Zerrenden zabalkundea

Kantu zerrendak tokiko komunikabideen webguneetan egonen dira edonoren eskura. Zehatzago *erran.eus*, *guaixe.eus* eta *amezti.eus* agerkari digitaletan, baita *elaide.eus* webgunean ere. Halaber, erakunde antolatzaileen webguneetan ere topatu ahalko dira kantu zerrendak.

Erakunde antolatzaileak

- Baztango Udala-Euskara Zerbitzua
 - Bortzirietako Euskara Mankomunitatea
 - Malerrekako Mankomunitatea-Euskara Zerbitzua
 - Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea
 - Sakanako Mankomunitatea-Euskara Zerbitzua
- <https://elaide.eus/eu/orria/aurkezpena>

AGENDA

UZTAILA

7-10 - Azkarateko festak

15-17 - Arribeko festak

29-31 - Azpirozko festak

ABUZTUA

5-8 - Errazkingo festak

14-15 - Uztegiko festak

24-28 - Gorritiko festak

27-28 - Iribaseko festak

* Egitarauak kontrazalean daude.

NEKAZARI, S.L.

 Olagain. Mugiro. Nafarroa
 Tel.: 948504128
 Fax: 948504377
 nekazaris@hotmail.com

BIDEGOXO JATETXEA
 Jaunartzeak
 Ezkontzak
 Ospakizunak
 Enpresa ekitaldiak
 Usabal Kiroldegia
 20400-TOLOSA 943 577 573
 info@bidegoxo.com

M. Angeles Urrizalki
 iragarkiak,
 berriak,
 eskelak...
Diario Vasco eta Diario de Navarra Korrespontsala
 948513056
 699179437

Atabal
 okindegia
 Era askotako
 ogiak eta gozoak
 Etxez etxe
 banatuko dugu
 Ogia enkargatzeko...
 948513151

BERTAKO HARAGIA
 Txistorra, txorizoa,
 saltxitxak,
 sukaldatutako
 platerak.
 Etxera eramateko
 zerbiztua ere
 eskeintzen dizugu.
 Antigua kalea 7
 31890 BETELU
 948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
 HIRUROK S. VETERINARIOS
 Telefono zenbakia eta faxa:
 948 50 43 31
 Lekunberri

Errotalea 19,
 Lekunberri

 www.martillotxiki.com
 679 938 016

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA ARLOETAKO HORNIGAIK BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA
URZUBI S.A.
 Tel. 948 50 42 41
 Fax 948 60 45 20
 Lekunberri
 urzubi@hotmail.com

TAXILON

 Lontxo Otamendi Artola
 661 202 249
 (9 plaza)
 E-posta: lotamendi5@gmail.com
 Atallu - Araitz

SOTIL GARAJEA

 BETELU
 948 513 007
 sotilgarajea@gmail.com

Lagunasesoria S.L.

 Fiskala
 Laborala
 Kontabilitatea
 Seguruak...
 k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
 lagunasesoria@terra.es

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

Construcciones Gañarbe
 Oztegin kalea 2, Lekunberri
 616 457 540
 construccionesganarbe@gmail.com
 636 827 846

JAIRIK JAI!

AZKARATEKO FESTAK

Uztailak 7, osteguna

-11:00etan, txupinazoa eta meza ermitan
-13:00etan, herriko jaioberriei ongiatorria
-Ondoren, abilezia jolasak
-14:00etan, bertso bazkaria (Sebastian Lizaso eta Julio Soto). Txartelak, egunean bertan herriko elkarteetan.
-18:00etan, Araitz-Beteluko dantzari txikiak.
Eta Udaberri dantza taldearen dantzaldi gidatua

Uztailak 8, ostirala

-14:00etan, puska biltza, Laja eta Lutxurdio trikitilariekin.
-Iluntzean, Dj Arkirekin, earki!

Uztailak 9, larunbata

-14:00etan, herri bertso bazkaria* (Aitor Mendiluze eta Oihana Iguaran)
*Autogestionatua
Edo txartelarekin (eman izena, 619-92 73 35 telefonoan)
Ondoren, Mattie eta Idoia trikitilariak eta Mus txapelketa azkarra.
-20:00etan, Fan&Go taldearen lehen saioa
-Parrillada herrikoia
-00:30etan, Fan&Go
-Ondoren, Dj Mallozar

Uztailak 10, igandea

-12:00etan, ume jolasak
-13:00etan, Bomba bat naiz (Bea Larrañaga) clown saioa familia osoarentzat
-18:00etan, herri kirolak
-19:30etan, tortilla eta postre lehiaketa eta sagardo dastaketa, Estangatarrak trikitilariekin

ERRAZKINGO FESTAK

Abuztuak 5, ostirala

-18:00etan, puska biltza
-00:30etan, Trikidantz

Abuztuak 6, larunbata

-11:30etan, puska biltza
-18:00etan, ume jokuak plazan eta mus txapelketa Txirrika elkarteetan
-21:00etan, afari autogestionatua
-01:00etan, Oskarbe

Abuztuak 7, igandea

-11:30etan, umeen arteko pilota partiduak
-12:30etan, ibarreko dantzariak
-18:00etan, herri kirolak
-20:00etan, barrikotea

Abuztuak 8, astelehena

-Zikiro jatea

GORRITIKO FESTAK

Abuztuak 24, asteazkena

-11:00etan, festei hasiera emateko ezki-la jotzea
-12:00etan, meza.
-14:00etan, herri bazkaria. Ondoren, Joxe Anjel soinu-jolearekin dantzaldia
-21:30etan, herri afaria autogestionatua

Abuztuak 25, osteguna

-11:00etan, egun osoko puska biltzea Joxe eta Iñaki soinu-joleekin alaitua
Abuztuak 26, ostirala
-12:00etan, herri krosa
-18:00etan, dantzariak eta Mikel Lasarerekin dantzaldi gidatua
-21:30etan, herri afaria
-00:00etan, Trikidantzekin dantzaldia

Abuztuak 27, larunbata

-12:00etan, ume jokoak
-17:30etan, pilota partiduak. Ados pilota eskolako gaztetxoaren partida eta ostean, afizionatuak:
Oreja-Olleta Astiz-Garaño
Ljurko-Larreta Galarza-Gurrea
-21:30etan, herri afari autogestionatua.
-Ondoren, musika

Abuztuak 28, igandea

-12:00etan, herri kirolak: aizkolari eta harri jasotzaileak
-18:00etan, bertso saioa: Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal eta Joanes Illarregi
-Ondoren, sagardo dastaketa

ARRIBEKO FESTAK

Uztailak 15, ostirala

-19:00etan, Araitz-Beteluko umeak dantzan
-20:13ean, txupinazioa
-Ondoren, Laiotz
-21:30etan, herri afaria
-Ondoren, Laiotz

Uztailak 16, larunbata

-11:45ean, ezkil jotzea
-12:00etan, puska biltza
-18:00etan, puzgarriak eta ume jolasak
-Ondoren, trikitilariak
-Gaeuean DJ Oixani

Uztailak 17, igandea

-10:00etan, goiz soinua
-12:00etan, meza
-Ondoren, patata tortilla lehiaketa eta gosaria
-17:00etan, pilota partiduak
-19:00etan, herri kirolak: Julen Kañamares, Eneko Saralegi, Ibai Soroa eta Txomin Amundarain
-Ondoren trikitilariak
-21:00etan, afari merienda
-Ondoren, ingurutxoa eta Dj Elorri

AZPIROZKO FESTAK

Uztailak 29, ostirala

-17:00etan, umeen festa
-20:00etan, ezkil jotzea
-21:00etan, patata tortilla lehiaketa eta afaria
-Ondoren, musika

Uztailak 30, larunbata

-10:00etan, erronda
-17:00etan, mus txapelketa

-17:30etan, umeen jolasak
-21:00etan, herri afaria
-00:00etan, gaupasa

Uztailak 31, igandea

-12:30etan, meza
-Ondoren, salda
-17:00etan, herri kirolak
-19:00etan, zartari jaurtiketa
-20:00etan, txokolatada eta festen bukaera

UZTEGIKO FESTAK

Abuztuak 14, igandea

-12:30etan, puska biltza herri osoan barrena
-19:00etan, Harrimina antzezlarina, Bonbon Beltz konpainiaren eskutik
-20:30etan, euskal preso eta iheslarien aldeko txupinazo brindisa
-21:00etan, herri afaria kantu herrikoiekin
-Ondoren, kontzertuak: Dj Muru eta Autopintxada

Abuztuak 15, astelehena

-Meza
-12:30etan, Araizko herri kirolak
-17:30etan, ume jolasak
-18:30etan, mus txapelketa
-20:00etan, Araizko sagardo eta pintxo dastaketa

IRIBASEKO FESTAK

Abuztuak 27, larunbata

-11:00etan, txupinazoa
-Ondoren, erronda
-19:30etik 21:00etara, Dominguez mariatxiak frontoiean
-21:30etan, catering baten eskutik afaria Martikonean

Abuztuak 28, igandea

-11:00etan, meza
-12:00etan, plaza dantza frontoiean
-18:00etan, haurren pilota partiduak
-Ondoren, txokolatada, festak bukatzeko